

Haurrentzako tailer bat izango da bihar Getxon (Bizkaia) liburutegiek antolatuta

Liburutegien Eguna ospatuko da bihar eta, hori dela eta, haurrentzako tailer bat egongo da Algortako (Getxo, Bizkaia) Kultur Etxeko liburutegian, 17:00etatik 19:30etara. Ekimen hori "*Liburutegiak, topaleku*" kanpainan kokatuta dago eta liburutegi publikoen erabilera eta irakurtzea bultzatzea ditu helburu nagusia. Horiez gain, kulturen aniztasuna sustatu nahi da. Getxoko Kultur Etxeko arduradunek azaldu dutenez, azken hori izango da, hain zuzen ere, tailerraren protagonista. Bertan, partaideek kanpaina horren liburu-markak jasoko dituzte, beren izenak hainbat hizkuntzatan idatzi ditzaten, horietako batzuk mendebaldeko alfabetoa erabiltzen ez dituztenak.

Horrela, besteak beste, karaktere arabiarrez, txinatarrez eta zirilikoz baliatu ahal izango dira umeei beren izenak idazteko. Horretarako, monitoreen eta zenbait hizkuntzako alfabetoen ereduak laguntza izango dute. Tailerrean parte hartuko duten guztiek liburutegien oroimena jasoko dute.

Aipatutakoaz gain, monitoreek beste material didaktiko batzuk ere izango dute tailerrean parte hartzeko itzaroten egongo diren haurrak entretenitzeko. Azkenik, kulturen aniztasunaren inguruko haur ipuinen erakusketa ere egongo da liburutegian.